Pleno de 30 de mayo de 2.001
B.O.G. nº 116 de 18 de junio de 2.001

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION DE TERRAZAS Y VELADORES EN LA VIA PUBLICA

CAPITULO 1

Articulo 1.- Objeto.

1.- El objeto de la presente Ordenanza es establecer el régimen técnico y jurídico de la instalación sobre la vía pública de terrazas, veladores, e instalaciones complementarias de unos y otros tales como parasoles, toldos, protecciones laterales, etc.

2.- A los solos efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas y veladores el conjunto de mesas, sillas e instalaciones móviles provisionales que sirven de complemento temporal a una actividad legalizada del ramo de hostelería tales como bares, restaurantes, cafeterías y similares, siendo otorgada a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de actividad.

3.- Queda prohibida la instalación de elementos distintos de los señalados en el punto 1, tales como refrigeradores, mesas, armarios, jardineras, etc.

Articulo 2.-

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía publica, espacios libres, zonas verdes, etc.) del municipio que sean de uso publico, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

CAPITULO II

INSTALACIONES EN ACERAS DE CALLES CON CIRCULACIÓN RODADA

Articulo 3.-

1.- En las calles de tráfico rodado podrá autorizarse la ocupación del dominio público con mesas velador en las siguientes condiciones:

a.- La anchura mínima de la acera necesaria para autorizar la ocupación será de 4 metros, una vez descontados los elementos de mobiliario urbano instalados en la misma.

b.- La anchura máxima de la franja que ocupen las mesas y sillas no superará en ningún caso la mitad de la anchura de la acera, salvo si la acera tiene una anchura superior a los 6 metros. En este caso, se ha de dejar un paso libre en la acera al menos 3 metros, una vez descontados los elementos de mobiliario urbano instalados. El paso libre peatonal podrá ser ampliado, a juicio municipal razonado, cuando lo requieran la intensidad del tráfico de viandantes.

c.- Las mesas y sillas se colocarán de manera que no impidan o dificulten en ningún momento el libre acceso a las fincas colindantes así como la fluidez de los peatones., no pudiendo colocarse ni frente a pasos de peatones ni salidas de emergencia de locales de pública concurrencia.

d.- El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidas protecciones laterales, no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo cuando el Ayuntamiento considere que no se ocasionan perjuicios a los colindantes y cuente con autorización por escrito de los colindantes de esta.

e.- Con carácter preferente se dispondrán longitudinalmente junto al borde de la acera y separadas de este al menos 30 cm.

f.- Cuando previo informe municipal razonado, y por circunstancias concretas, fuera conveniente la ubicación del velador junto a la fachada del establecimiento, se podrá autorizar esta disposición de acuerdo con el diseño y condiciones que proponga el técnico competente para informar sobre la concesión de la licencia.

Artículo 4.- Protecciones laterales

1.- El área ocupada por la instalación deberá quedar delimitada por protecciones laterales que acoten el recinto, y que permitan identificar el obstáculo a las personas con deficiencias visuales.

2.- Estas protecciones laterales deberán ser móviles y desmontables, opacas o transparentes en una superficie de 1 m medido desde el suelo y el resto trasparentes, de conformidad con las características técnicas establecidas para los materiales establecidas en el art. 12.

3.- No podrán rebasar el ancho autorizado de la instalación correspondiente, y su altura no será inferior a 1 m, ni superior a 1,50 metros.

4.- Estas protecciones deberán ser estables y continuas, que no tengan cantos vivos, no autodeslizantes y con resistencia al vuelco.

5.- En el caso de que sea preciso realizar anclajes al suelo para asegurar su estabilidad, cuando se retiren las protecciones laterales, estos anclajes en ningún caso deben sobresalir de la acera.

Articulo 5.- Limitaciones a la instalación de coberturas de las terrazas y veladores.

La autoridad municipal competente podrá denegar la solicitud para la instalación de coberturas en cualquiera de los supuestos siguientes:

a).- Que suponga perjuicio para la seguridad viaria (disminución de la visibilidad, distracción del conductor... etc.) o dificulte sensiblemente el trafico de peatones.

b).- Que pueda incidir sobre la seguridad (evacuación...) de los edificios y locales próximos;

c).- Que resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

CAPITULO III

INSTALACIONES EN AREAS PEATONALES, PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES.

Articulo 6.- Calles peatonales.

1.- En las zonas o calles peatonales predominará su carácter de espacio de encuentro público. Por esa razón, no se autorizará la instalación de mesas y sillas, salvo que la anchura de la calle sea superior a 9 metros y que la anchura de la zona ocupada por los veladores no supere, en ningún caso , la tercera parte de la anchura de la calle.

2.- Se acotará y protegerá la instalación lateralmente en la forma prevista en el art. 4.

3.- En las zonas peatonales las mesas velador no se podrán instalar durante el horario en que esté permitida la circulación de vehículos.

4.- Si al cualquier hora del día un vehículo autorizado o de urgencias tuviera necesidad de circular por la zona peatonal y las mesas o veladores se lo impidieran o dificultarán, el titular de estas deberá proceder a la retirada inmediata de las mismas a fin de facilitar la maniobra del vehículo.

Artículo 7.- Coberturas provisionales.

El área delimitada para la instalación, podrá cubrirse con instalaciones de carácter provisional y por tanto, fácilmente desmontables, ancladas sobre la acera, que reúnan además los requisitos siguientes:

a).- Solo podrán disponer de cuatro puntos de anclaje por cada 4 m de desarrollo longitudinal.

b).- Los pies derechos no podrán separarse transversalmente más de dos (2) metros entre sus caras más alejadas.

c).- La distancia entre cualquier pie derecho y la arista exterior del borde de la acera , no será inferior a (30) cm. , salvo en los supuestos en los que exista barandilla de protección, en cuyo caso podrá reducirse a 10 cm. de esta.

Artículo 8.- Plazas y espacios libres singulares.

1.- Las solicitudes para la instalación de terrazas y veladores en estos espacios, se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción las siguientes limitaciones generales :

a).- Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juego y descanso existentes. No se impedirá la fluidez del paso de los viandantes.

b).- Únicamente podrán solicitar licencia de ocupación de la vía publica en estos espacios los titulares de los locales definidos en el art. 1 cuyos frentes de fachada den a los mismos.

c).- El espacio ocupado por los veladores autorizados no superará el 25% del espacio central, descontadas las zonas ajardinadas, de juego y otro mobiliario urbano.

d).- Los veladores se separarán un mínimo de 3 metros de las fachadas a que dan frente a los establecimientos a que pertenecen.

e).- Queda prohibida su instalación en las zonas señaladas como paso.

f).- En caso de concurrencia de diversas solicitudes de ocupación sobre un mismo espacio central, la superficie a ocupar por los distintos establecimientos, se distribuirá proporcionalmente al espacio que dichos locales tengan asignado al público.

2.- La ocupación no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento, deberá contar con la autorización por escrito de los colindantes cuando pretenda ocupar la fachada de los mismos, solo se referirá a sillas y mesas, estando prohibida la instalación de barras exteriores, maquinas, quioscos, toldos con anclaje fijo, etc.

CAPITULO IV
CONDICIONES TECNICAS Y DE PUBLICIDAD

Articulo 9.-

Se colocará exclusivamente el numero de mesas y sillas autorizado. El número de mesas por establecimiento autorizado será como máximo de 16, que conllevará la autorización para la instalación de 4 sillas máximo por mesa. Para cualquier cambio, deberá presentar nueva solicitud y obtener la correspondiente autorización.

Artículo. 10.-

El titular de la autorización tiene la obligación de mantener, durante todo el día, el espacio ocupado en las debidas condiciones de limpieza e higiene , efectuando tareas de barrido y limpiezas periódicas.

Así mismo, deberá retirar los elementos del mobiliario al término de cada jornada, al interior del establecimiento, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

En casos excepcionales y previa justificación de la imposibilidad física de la recogida, se permitirá a través de la correspondiente autorización, a apilar los elementos de mobiliario tras el horario de ocupación en la vía pública, con las debidas medidas de seguridad y sujeción y reduciendo al máximo la zona ocupada así como su impacto visual. Se dejará libre la zona próxima a la fachada, salvo los casos excepcionales que serán, asimismo recogidos en la correspondiente autorización.

En los casos en que para la colocación de sombrillas, mesas, sillas, o protecciones tanto laterales como superiores sea preciso realizar anclajes en la vía pública, estos se deberán colocar de tal forma que tras su retirada, estos no sobresalgan de la misma. Para el supuesto de que se observen daños o desperfectos en la vía publica ocupada o en elementos urbanos cercanos producidos por la instalación autorizada, la administración municipal exigirá el importe total de los referidos daños.

De la misma forma, en caso de que el titular de la actividad de hostelería cese en la misma, deberá reponer la vía pública a su estado original, salvo que acredite que en el local se va a seguir desarrollando una actividad de hostelería que puede llevar aparejada la utilización de los anclajes.

Artículo 11.-

Únicamente podrá colocarse publicidad comercial en sombrillas, parasoles, toldos y protecciones laterales, en un tamaño de 30 x 22 cm. a fin de evitar un impacto visual negativo. Esta publicidad solo se podrá colocar un ejemplar de 30 x 22 cm. por cada uno de los lados de una sombrilla o parasol que cubra una mesa con 4 sillas o de mayor dimensión, y 1 ejemplar por cada una de las protecciones laterales.

Articulo 12.-

1.- Para dar cierta armonía y estética al mobiliario urbano (mesas, sillas, sombrillas), este deberá tener las siguientes características:

- **Materiales**: Se utilizará predominantemente el aluminio, pudiendo combinarse con otros materiales como madera tratada, vinilo, etc. En ningún caso la estructura de mesas y sillas podrá ser de plástico.

- **Colores**: Se deberán utilizar los tonos neutros (blancos, cremas, metalizados....). No pueden utilizarse colores llamativos y/o chillones. A estos efectos y en caso de que el interesado tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color , podrá dirigirse a los servicios técnicos municipales a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de autorización.

2.- Se prohíben expresamente las terrazas estándar de publicidad que incumplan las condiciones o materiales descritos anteriormente.

3.- El mobiliario en general (mesas, sillas, toldos, separadores, etc.) se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.

4.- Sombrillas: Las individuales para cada mesa, no podrán ir ancladas al suelo. Para sombrillas y toldos que cubran más de una mesa, se requerirá licencia expresa.

CAPITULO V
HORARIOS

Articulo. 13 .

Queda prohibido turbar el reposo del vecindario con ruidos, gritos u otras molestias, con especial atención a partir de las 22:00 horas. En todo caso estará prohibida la instalación de megafonía exterior.

Articulo 14.-

1.- El horario de ocupación será el siguiente:

Instalación

- Desde las 10:00 sin que se entorpezcan las labores de limpieza.

Retirada

Del 15 de junio al 15 de septiembre:

De domingo a jueves: 24:00 horas.
Viernes, sábados y vísperas de festivos: 01:00 horas.

Resto del año:

De domingo a jueves: 23:00 horas.
Viernes, sábados y vísperas de festivos: 24:30 horas.

2.- En aquellos lugares como plazas cerradas o casos en los que se produjeran quejas por situarse el forjado inferior de las viviendas a una cota muy baja con respecto al forjado de la plaza , así como en aquellos casos en que se constate que , por cualquier otro motivo se producen molestias al vecindario , se podrá limitar el horario hasta las 21:00 horas d domingo a jueves y hasta las 22:30 horas los viernes, sábados y vísperas de festivos.

3.- En las áreas o calles peatonales el horario de la instalación no se iniciará en tanto no haya finalizado el horario de carga y descarga.

Artículo 15.-

Queda prohibido el servicio de comidas y/o cenas en las mesas que ocupen la vía publica para aquellos establecimientos que no tengan licencia de restaurante. En el resto, se autorizará únicamente el servicio de aperitivos.

CAPITULO VI
CONDICIONES DE AUTORIZACIÓN

Articulo 16.-

Las licencias para la colocación de veladores en la vía pública tendrán una duración de temporada o anual, estableciéndose tres temporadas:

Temporada A: del 1 de mayo al 31 de octubre.

Temporada B: resto del año.

Temporada C: año natural completo.

Articulo 17.-

1.- La instalación de veladores y de sus elementos auxiliares queda sujeta a la previa autorización municipal.

2.- A estos efectos, el interesado deberá presentar la correspondiente solicitud normalizada que le será proporcionada por el SAC, a la que se deberá acompañar la autorización de los titulares de los establecimientos adyacentes en el supuesto en que pretenda la instalación ocupando la fachada de establecimientos colindantes.

3.- A la solicitud de licencia o cuando se trate de un cambio sustancial de la licencia (nº de mesas, ubicación, etc.) deberá adjuntarse, así mismo, un proyecto de instalación, que constará, al menos, de los siguientes planos:

a).- Plano de emplazamiento del local a escala 1:500 (sobre base de cartografía oficial), con detalle de superficie a ocupar por la instalación, e indicación de longitud de fachada y del ancho de los pasos resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier obstáculo fijo (señales de trafico, árboles, bancos, mobiliario urbano, etc.) y de posible afecciones a servicios municipales (agua, saneamiento, gas).

b).- Plano de detalle, a escala 1:50, en el que se recoja el tramo de vía publica afectado por la instalación, con detalle de distribución de mesas y sillas, protecciones laterales, parasoles, etc., (señalando su proyección en planta).

c.- En este segundo plano, se incluirá detalle, a escala 1:20, de la protección lateral, en planta y alzado, y, en su caso, de cualquier cubrición provisional.

4.- Cuando por razones de seguridad y ornato, y previo juicio municipal razonado se estime necesario, se exigirá que el proyecto, a que se refiere este artículo, venga avalado por la firma de técnico competente.

5.- En los supuestos en los que se pretenda un cambio de titularidad, renovación y en general todas aquellas circunstancias que no conlleven alteraciones sustanciales en el contenido de la autorización, el interesado solo vendrá obligado a comunicar formalmente dicho cambio, mediante instancia a presentar en el SAC.

6.- En el resto de supuestos que conlleven un cambio sustancial del contenido de la autorización, el interesado vendrá obligado a solicitar autorización conforme a lo dispuesto en el punto 3 del presente artículo.

Artículo 18.-

1.- Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el beneficiario en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

2.- En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, periodo de vigencia de la autorización, y demás particularidades que se estimen necesarias.

3.- La licencia tendrá siempre carácter de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas , cuando circunstancias del tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.

4.- El titular de la licencia queda obligado a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública, como consecuencia de la instalación.

Articulo 19.-

1.- Las autorizaciones tendrán un periodo de vigencia máximo de 1 año, de forma que el interesado vendrá obligado a solicitar la renovación de la misma una vez transcurrido dicho plazo.

2.- Transcurrido el periodo de vigencia, el titular de la licencia, y en su caso, el del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior.

3.- Las solicitudes de renovación de licencia para ulteriores periodos que no supongan cambios sustanciales en la misma, habrán de venir tan solo acompañadas de la renovación de la conformidad de los establecimientos adyacentes, salvo que hubieran variado las circunstancias que dieron origen a aquella.

Articulo 20.-

1.- Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se derivan de la presente Ordenanza, el titular de la instalación queda obligado a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceniceros, etc.

2.- El titular de la instalación abonará al Ayuntamiento las tasas y demás exacciones que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecida en las ordenanzas fiscales.

CAPITULO VII
REGIMEN SANCIONADOR

Artículo 21.- Instalaciones sin licencia.

1.- La autoridad municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, los veladores y terrazas instalados sin licencia en la vía publica, y proceder a su deposito en lugar designado a ello, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

2.- La permanencia de terrazas y veladores, tras la finalización del periodo de vigencia de la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal .

Art. 22.- De las infracciones.

A los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves y graves.

1.- Tendrán la consideración de infracciones leves:

a).- Colocación de terrazas y veladores fuera del horario establecido.

b).- Colocación de elementos (mesas, sillas o otros elementos auxiliares) excediendo el nº de elementos autorizado.

c).- La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.

d).- No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.

e).- El incumplimiento de la normativa establecida en la presente ordenanza.

2.- Tendrán la consideración de infracciones graves:

a).- La instalación de veladores, terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia.

b).- La colocación de elementos sujetos a la presente ordenanza sin respetar las condiciones técnicas establecidas en el art. 12.

c).- La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

Art. 23.- De las sanciones.

1.- Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

a.- Infracciones leves con multa de 15.000 a 50.000 pesetas y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.

b.- Infracciones graves con multa de 50.000 a 150.000 pts y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en el presente ordenanza, durante el plazo de 2 años , a tenor de la gravedad de los hechos.

2.- Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

3.- Las cuantías de las sanciones establecidas en la presente Ordenanza serán anual y automáticamente actualizadas con arreglo al índice de precios al consumo, el cual se aplicará sobre la cuantía de la sanción del año anterior.

Articulo 24.- Expediente sancionador.

Las sanciones que procedan solo podrán imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la potestad sancionadora de las Administraciones Publicas de la CAV.

Articulo 25.- Ejecución subsidiaria.

1.- Cuando el responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de elementos instalados en la vía pública, en los supuestos previstos en la presente Ordenanza, la Administración podrá proceder subsidiariamente al levantamiento de los mismos, quedando depositados en el lugar designado para ello , de donde podrán ser retirados por la propiedad , previo abono de los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en los art. 98 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, Ley de Procedimiento Administrativo Común.

2.- Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente articulo, no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte del interesado se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta, o cesión.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A fin de permitir una paulatina adaptación de las autorizaciones concedidas de terrazas y veladores a las condiciones técnicas y de publicidad establecidas en la presente ordenanza, se establece un periodo de adaptación hasta el 31 de diciembre de 2002. A partir de esta fecha , todos los elementos componentes de las terrazas y veladores deberán cumplir con las condiciones técnicas y de publicidad establecidas en la presente Ordenanza.

DISPOSICIONES FINALES

1.- La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto integro de la misma en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

2.- Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. KAPITULUA

1. artikulua.- Xedea

1.- Ordenantza honen xedea bide publikoan terrazak, mahaitxoak eta horien instalazio osagarriak (hala nola, itzalkiak, olanak edo toldoak, alboetako babesak, etab.) jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2.- Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako soilik, terraza eta mahaitxotzat jotzen dira ostalaritzako legezko jardueretan, hala nola, jatetxe, kafetegi eta antzekoetan, aldi baterako osagarri gisa erabiliko diren mahai, aulki eta behin-behineko instalazio mugikorrak. Jarduera lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei emango zaie horretarako baimena.

3.- Debekatuta dago 1. atalean zehaztu ez diren osagaiak jartzea, hala nola, hozkailuak, mahaiak, armairuak, lore-askak, etab.

2. artikulua.-

Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko toki guztietarako aplika daiteke (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), titulartasun publikoko zein pribatukoak izan. Erabilera publikoko izatearen baldintza egitatezko egoerak eta indarrean dagoen planeamenduko zehaztapenak aplikatzeak zehaztuko du.

II. KAPITULUA

INSTALAZIOAK IBILGAILU ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO ESPALOIETAN

3. artikulua.-

1.- Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetan jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a.- Okupazioa baimentzeko beharrezkoa izango da espaloia gutxienez 4 metro zabal izatea, kopuru horretatik kanpo utzita espaloian jarritako hiri-altzarien elementuak.

b.- Mahai eta aulkiek hartzen duten espaloi-zatia ez da inola ere espaloiaren zabalera osoaren erdia baino handiagoa izango, non eta espaloiaren azalera ez den 6 metrotik gorakoa. Sei metrotik gorakoa bada, espaloian gutxienez 3 metroko pasabide librea utzi behar da, hiri-altzarien elementuak horren barnean sartu gabe. Udalaren arrazoiketaren

bitartez, oinezkoen pasabide librea handitu ahal izango da, oinezkoen joan-etorri handiak hori eskatzen badu.

c.- Mahai eta aulkiek ez dute inola ere inguruko finketarako sarbidea eta oinezkoen joan-etorri arina galerazi edo eragotziko, eta ezin izango dira oinezkoen pasabideen parean edo jende asko ibiltzen den tokietako larrialdi-irteeren parean jarri.

c.- Instalazioak, alboko babesak barne, luzetara gehienez hartuko duen espazioa ez da jarduera nagusia egiten den establezimenduaren fatxadaren luzera baino handiagoa izango, non eta ez den gertatzen Udalak ez duela ikusten kalterik eragiten zaienik aldamenekoei eta aldamenekoen baimen idatzia baldin badu.

d.- Lehentasunez luzetara jarriko dira, espaloi-ertzaren ondoan, eta espaloitik gutxienez 30 cm-tara.

d.- Gorabehera zehatzak direla medio, aldez aurretik udal txosten arrazoitua eginda komenigarritzat jotzen bada mahaia establezimenduaren fatxadaren ondoan jartzea, kokaleku horretarako baimena eman ahal izango da, beti ere, lizentzia emateari buruz informatzeko eskumena duen teknikariak proposatzen dituen baldintzen eta diseinuaren arabera.

4. artikulua.- Alboetako babesak

1.- Instalazioak hartzen duen azalera mugatu edo zedarritu egingo dute esparrua inguratzen duten alboetako babesek. Babes horien bidez oztopoak antzeman ahal izango dituzte ikusmen-urritasuna duten pertsonek.

2.- Alboetako babes horiek mugikorrak eta desmunta daitekzeenak izan beharko dute, opakoak edo gardenak lurretik kontatuta metro batera artean, eta gainontzean gardenak izango dira, hala ezartzen baitute 12. artikuluan materialetarako ezarritako ezaugarri teknikoek.

3.- Babesak ezin izango dira dagokien instalazioetarako baimendutakoa baino zabalagoak izan, eta horien altuera metro bat eta 1,50 artekoa izango da.

4.- Babes horiek egonkorrak eta jarraiak izan beharko dute, ez dute ertz zorrotzik izango, ez dira autoirristakorrak izango, eta ez iraultzeko erresistentzia izango dute.

5.- Egonkortasuna ziurtatzeko beharrezkoa bada lurrean ainguratzea, alboetako babesak kentzean ainguralekuak ez dira espaloitik kanpo aterako inola ere.

5. artikulua.- Terraza eta mahaitxoen estalkiaren instalazioetarako mugak

Udal agintari eskudunak estalkiak jartzeko eskabidea ukatu ahal izango du baldin eta:

a).- Bide segurtasunerako kalteak sortarazten baditu (ikuspena gutxitu, gidariari arreta galarazi, etab.) edo oinezkoen zirkulazioa nolabait eragozten badu.

b).- Inguruko eraikin eta lokalen segurtasunean (horiek husteko...) eragina badu.

c).- Ingurunearekiko desegokia edo bat ez datorrena baldin bada, edo hiri paisaiaren irakurketa zuzena eragozten badu.

III. ATALA

INSTALAZIOAK OINEZKOEN ESPARRUETAN, PLAZETAN ETA TOKI LIBRE BEREZIETAN

6. artikulua.- Oinezkoen kaleak

1.- Oinezkoen eremu edo kaleetan topagune publikorako espazioak nagusituko dira. Arrazoi horregatik, eremu horietan ez da mahaiak eta aulkiak jartzeko baimenik emango, non eta kalearen zabalera ez den 9 metrotik gorakoa eta mahaitxoek hartzen duten eremuaren zabalera ez den, inola ere, kalearen zabaleraren herenetik gorakoa.

2.- Instalazioaren alboak mugatu eta babestuko dira 4. artikuluan aurreikusitako moduan.

3.- Oinezkoen eremuetan mahaitxoak eta aulkiak ezin izango dira jarri ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen ordutegian.

4.- Eguneko edozein ordutan baimendutako ibilgailu batek edo larrialdiko ibilgailu batek oinezkoen eremutik pasa beharra baldin badauka eta mahaitxoek edo aulkiek pasabidea oztopatzen edo galerazten badute, mahaien titularrak mahaiak kentzeari ekin beharko dio berehala, ibilgailuaren maniobra errazteko.

7. artikulua.- Behin-behineko estalkiak

Instalaziorako mugatutako esparrua behin-behineko instalazioen bidez estali ahal izango da. Horiek erraz desmunta daitezkeenak izango dira, eta espaloian ainguratu edo sartzen direnetakoak. Horretaz gain, baldintza hauek beteko dituzte:

a) Luzetarako 4 metro bakoitzeko gehienez lau ainguraketa-toki izango dituzte.

b) Eskuineko oinak ezin izango dira zeharka bi (2) metrotik gora bereizita egon urrunen dituzten alderdietatik.

c).- Eskuineko edozein oinen eta espaloi-izkinaren kanpoko ertzaren arteko tartea ez da 30 cm-tik beherakoa izango. Nolanahi ere, babes-barandaren bat baldin badago, 10 cm-koa izan ahalko da.

8. artikulua.- Plazak eta eremu libre bereziak

1.- Eremu horietan terrazak eta mahaitxoak jartzeko eskabideak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira, muga orokor hauen arabera:

a).- Lorategiz hornitutako eremuak, jolas-esparruak eta atsedenlekuak errespetatuko dira. Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko.

b).- Eremu horietan bide publikoa erabiltzeko lizentzia eskatu ahal izango duten bakarrak izango dira 1. artikuluan zehaztutako lokalen titularrak, baldin eta horien establezimenduaren fatxadaren aurrealdeak horietara ematen badu.

c).- Baimendutako mahaitxoek hartzen duten eremuak gehienez ere erdiko eremuaren %25eko azalera izango du, lorategiz hornitutako esparruak, jolas-eremuak eta hiri-altzarien eremua deskontatuta.

d).- Gutxienez 3 metro utzi beharko da mahaien eta mahaien jabe den establezimenduaren pareko fatxaden artean.

e).- Debekatuta dago pasabide gisa zehaztutako tokietan instalatzea.

f).- Erdiko eremu bat erabiltzeko eskabide bat baino gehiago badaude, establezimendu ezberdinek hartuko duten azalera proportzioaren arabera banatuko da, hau da, establezimendu horiek publikorako esleituta duten eremuaren arabera.

2.- Inola ere ezin izango da Udalak baimendutako azaleratik kanpoko esparruan jarri; aldamenekoen baimen idatzia izan beharko du horien fatxada hartu nahi badu; mahaiak eta aulkiak besterik ezin izango dira jarri, eta debekatuta egongo da kanpoko barrak, makinak, kioskoak, ainguraketa finkoko olanak eta abar jartzea.

VI. ATALA

BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATE BALDINTZAK

9. **artikulua.-**

Baimendutako mahai- eta aulki-kopurua jarriko da, ez gehiago. Establezimendu bakoitzeko gehienez ere 16 mahai baimenduko dira, eta gehienez 4 aulki mahai bakoitzeko. Edozein aldaketa egiteko, eskabide berria egin eta dagokion baimena lortu beharko da.

10. artikulua.-

Mahaiek eta aulkiek hartzen duten eremua egun osoan garbitasun eta higiene egoera egokian edukitzeko betebeharra du baimenaren titularrak. Erratza pasa eta aldian behin garbiketa egin beharko du.

Horretaz gain, eguneko jarduna bukatzean altzari-elementuak estableziemenduaren barrura sartu beharko ditu, eta mahaiek hartzen duten eremua garbitasun egoera ezin hobean utzi.

Kasu berezietan, eta elementuak jasotzeko ezintasun fisikoa aurrez justifikatzen bada, dagokion baimena eskuratuta altzari-elementuak pilatu egingo dira bide publikoa hartzen duten ordutegiaren ondoren, beharrezkoak diren segurtasun eta finkapen neurriak hartuta eta ahalik eta eremurik txikiena hartzen dutelarik. Ikuspegiaren gaineko eraginak ere ahalik eta txikiena izan beharko du. Libre utziko da fatxadaren ondoko eremua, dagokien baimenetan jasoko diren kasu berezietan izan ezik.

Eguzkitakoak, mahaiak, aulkiak edo alboetako nahiz goiko babesak jarri ahal izateko beharrezkoa bada bide publikoan ainguraketak egitea, horiek kentzean bide publikotik ez direla aterako ziurtatzeko moduan jarriko dira. Baimendutako instalazioak bide publikoan hartzen duen tokian edota hurbileko hiri-osagaietan kalteak edo akatsak eragin dituela ikusten bada, udal administrazioak kalte horien diru-zenbateko osoa eskatuko du.

Era berean, ostalaritzako jardueraren titularrak jarduera uzten badu, bide publikoa aurreko egoeran jarri beharko du, non eta ez duen egiaztatzen lokalean osatalaritza jarduera jarraitu behar duela eta horretarako ainguraketak erabili behar dituela.

11. artikulua.-

Merkataritza publizitatea soilik eguzkitako, itzalki, olana edo toldo eta alboetako babesetan jarri ahal izango da, eta tamaina 30 x 22 cm-koa izango da, ikuspegiaren gaineko eragin negatiboa saihesteko. Kopuruari dagokionez, soilik 30 x 22 cm-ko ale bat jarri ahal izango da mahai bat eta 4 aulki estaltzen dituen edo tamaina handiagoko eguzkitako edo itzalki baten aldeetako bakoitzeko, eta ale bat alboetako babesetako bakoitzeko.

12. artikulua.-

1.- Hiri-altzariei (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak) nolabaiteko harmonia eta estetika emateko, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- **Materialak**: Batez ere aluminioa erabiliko da, eta beste zenbait materialekin batera jarri ahal izango da, hala nola, egur tratatua, biniloa, etab. Mahai eta aulkien egitura ezingo da plastikozkoa izan.

- **Koloreak:** Tonu neutroak erabili beharko dira (zuria, krema, metalizatua...). Ezin dira kolore deigarriak eta/edo bizi-biziak erabili. Horri dagokionez, interesdunak zalantzaren bat badu kolore edo material zehatz bat indarrean dagoen arautegiaren arabera egokia den, udal zerbitzu teknikoetara jotzeko aukea izango du, baimen-eskabidea egin aurretik alderdi horiek argitzeko.

2.- Berariaz debekatzen dira azaldutako materialak edo baldintzak betetzen ez dituzten publizitatedun terraza estandarrak.

3.- Altzariak oro har (mahaiak, aulkiak, olanak, bereizgailuak, etab.) zaintze-egoera onean mantendu beharko dira beti.

4.- Eguzkitakoak: Mahai bakoitzerako banakako eguzkitakoak ez dira lurrean ainguratuko. Mahai bat baino gehiago estaltzen duten eguzkitako eta olanak jartzeko berariazko lizentzia eskatu beharko da.

V. ATALA
ORDUTEGIAK

13. artikulua

Debekatuta dago auzokoen lasaitasuna zarata, oihu edo bestelako eragozpenen bidez galeraztea, batez ere 22:00etatik aurrera. Debekatuta dago kanpoan megafonia jartzea.

14. artikulua

Eremua erabili ahal izateko ordutegia honakoa izango da:

<u>Instalazioa</u>

10:00etatik aurrera, garbiketa-lanak oztopatu gabe.

<u>Kentzea</u>

Ekainaren 15etik irailaren 15era:

Igandetik ostegunera: 24:00.
Ostiral, larunbat eta jai-bezperak: 01:00.

Urteko gainontzeko egunetan:

Igandetik ostegunera: 23:00.
Ostiral, larunbat eta jai-bezerak: 24:30.

2.- Plaza itxien moduko tokietan, edo plazaren forjatuaren aldean etxebizitzen behealdearen forjatua oso behean gelditzen delako kexak jasotzen direnean, eta, halaber, beste edozein arrazoi dela medio auzotarrei eragozpenak sortarazten zaizkiela egiaztatzen denean, igandetik ostegunera bitarteko ordutegia 21:00ak arte mugatu ahal izango da, eta ostiral, larunbat eta jai-bezperetako ordutegia, berriz, 22:30ak arte.

3.- Oinezkoen eremu edo kaleetan instalazioaren ordutegia ez da hasiko harik eta zamalanerako ordutegia bukatzen ez den arte.

15. artikulua

Debekatuta dago bide publikoa hartzen duten mahaietan bazkari eta/edo afarien zerbitzua ematea jatetxe lizentzia ez duten establezimenduetan. Jatetxe lizentziarik ez dutenetan janaurrekoen zerbitzua ematea besterik ez da baimenduko.

VI. ATALA
BAIMENA EMATEKO BALDINTZAK

16. artikulua.-

Bide publikoan mahaitxoak jartzeko lizentziak aldi bateko edo urtebeteko iraupena izango dute. Hiru denboraldi ezartzen dira:

A denboraldia: maiatzaren 1etik urriaren 31 arte.
B denboraldia: urtearen gainontzeko denboraldia.
C: urte natural osoa.

17. artikulua

1.- Mahaitxoak eta elementu osagarriak jartzeko, aurrez udal lizentzia eskuratu behar da.

2.- Horretarako, interesdunak HAZen emango zaion eskabide normalizatua aurkeztu beharko du, eta horrekin batera, ondoko establezimenduen titularren baimena, baldin eta egin nahi den instalazioak ondoko establezimenduen fatxada hartzen badu.

3.- Lizentzia-eskabidearekin batera, edo lizentziaren aldaketa garrantzitsua egitean (mahaien kopurua, kokalekua, etab.), instalazio proiektua ere aurkeztu beharko da. Horrek gutxienez plano hauek izango ditu:

a).- Lokalaren kokalekuaren planoa, 1:500 eskalan (kartografia ofizialeko oinarriaren arabera). Instalazioak hartuko duen azalera zehaztuko da, bai eta fatxadaren luzera eta ondoriozko pasabidearen zabalera ere. Horretaz gain, dagoen edozein oztopo finkoren berri eman beharko du (trafiko seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, hiri-altzariak, etab.), bai eta udal zerbitzuetan izan ditzaketen eraginak ere (ura, saneamendua, gasa).

b).- Xehetasun azterketa, 1:50 eskalan. Instalazioak hartzen duen bide publikoaren zatia jasoko da, eta mahaiak, aulkiak, alboetako babesak, itzalkiak eta abar nola banatuko diren azalduko da (plantan duten proiekzioa zehaztuta).

c).- Bigarren plano honetan alboko babesaren xehetasuna sartuko da, 1:20 eskalan, plantan eta altxaeran, eta, hala badagokio, behin-behineko edozein estalkiren xehetasuna.

4.- Segurtasun eta apaindura arrazoiak direla medio, eta aurrez Udalak epai arrazoitua eginda beharrezkotzat jotzen bada, artikulu honetan aipatzen den proiektua teknikari eskudunaren izenpeaz bermatzeko eskatuko da.

5.- Titulartasuna aldatu edo berritu nahi bada, edo oro har, baimenaren edukian aldaketa handirik sorrarazten ez duen eragiketa bat egin nahi bada, interesdunaren betebehar bakarra izango da aldaketa horren berri formalki ematea, HAZen aurkeztu beharreko eskabide batez.

6.- Baimenaren edukian aldaketa garrantzitsua eragiten duten gainontzeko kasuetan, interesduna behartuta egongo da artikulu honen 3. atalean xedatutakoaren arabera baimena eskatzeko.

18. artikulua.-

1.- Lizentziak beti jabetza eskubideari kalterik egin gabe eta hirugarrenei eragozpenik sorrarazi gabe emandakotzat joko dira. Hori ezingo da erabili onuradunak bere jarduerak betetzerakoan eragin lezakeen erantzukizun zibil edo zigor-erantzukizuna kentzeko edo murrizteko, eta, halaber, ez dute titularra beste baimen batzuk eskuratu behar izatetik salbuesten.

2.- Lizentziaren dokumentuan hainbat alderdiri buruzko baldintzak ezarriko dira: instalazioak eta elementu osagarriak, hartu beharreko azalera, baimenaren iraupena, eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko berezitasunak.

3.- Lizentziak prekario izaera izango du beti, eta trafiko eta urbanizazio gorabeherek edo intreres orokorreko beste edozein inguruabarrek hala eskatzen duenean, udal agintariak baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko agindu ahal izango du, modu arrazoituan. Partikularraren kontura egingo da, eta ez du inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango.

4.- Lizentziaren titularra behartuta dago instalazioaren ondorioz bide publikoan eragiten dituen kalte guztiak konpontzera.

19. artikulua.-

1.- Baimenek urtebeteko iraupena izango dute. Epe hori bukatzean, interesdunek baimena berritzeko eskatu beharko dute.

2.- Baimena indarrean dagoen epea bukatzean, lizentziaren titularrak eta, hala badagokio, dagokion establezimenduarenak, instalazio guztia kendu beharko du, eta bide publikoa aurrez zegoen bezala utzi.

3.- Lizentzia berritzeko eskatu nahi bada, eta lizentzian aldaketa handirik egin behar ez bada, nahikoa izango da eskabidearekin batera ondoko establezimenduen adostasuna berritzen duen dokumentua aurkeztea, beti ere, lizentzia eragin zuten inguruabarrak aldatu ez badira.

20. artikulua.-

1.- Izaera orokorreko betebeharrez eta ordenantza honetatik eratorritakoez gain, instalazioaren titularra behartuta dago baimentzen den okupazioko lurra, instalazioa bera eta elementu osagarriak garbitasun, segurtasun eta apaintasun egoera ezin hobean edukitzera, eta horretarako beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak, etab.

2.- Instalazioaren titularrak dagozkion tasa eta ordainarazpenak ordainduko dizkio Udalari, ordenantza fiskaletan ezarritako zenbatekoan eta moduan.

VII. ATALA
ZEHATZEKO ARAUBIDEA

21. artikulua.- Lizentziarik gabeko instalazioak

1.- Lizentziarik gabe bide publikoan jarritako mahaitxo eta terrazak kendu ahal izango ditu udal agintariak, berehala eta kautelaz, eta dagokien tokian utzi. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko.

2.- Diziplina ondorioei begira, udal baimenik ez izatearen parekotzat joko da lizentziaren iraunaldia bukatutakoan terrazak eta mahaiak ez kentzea.

22. artikulua.- Arau-hausteak

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak arin eta larrietan sailkatzen dira.

1.- Arau-hauste arintzat joko dira honakoak:

a).- Terrazak eta mahaiak ezarritako ordutegiaz kanpo jartzea.

b).- Baimendutako elementu-kopurua baino elementu gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak edo bestelako elementu osagarriak).

c).- Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.

d).- Okupazio-eremua apaintasun, segurtasun eta garbitasun egoera egokian ez edukitzea.

d).- Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

2.- Arau-hauste larritzat joko dira:

a).- Mahaitxoak, terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea.

b).- Ordenantza honi loturik dauden elementuak 12. artikuluan ezarritako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.

c).- Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urtean hiru arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

23. artikulua.- Zigorrak

1.- Ordenantza honetako arau-hausteak direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

a.- Arau-hauste arinak: 15.000 eta 50.000 pta. arteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada.

b.- Arau-hauste larriak: 50.000 eta 150.000 pta. arteko isuna eta/edo establezimendua ahalmenik gabe uztea etorkizunean ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, 2 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.

2.- Gerora instalazioa legeztatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udal aginduak betetzeari uko egin ez bazaio, zehapena zigor ekonomiko soila izatera murriz daiteke.

3.- Ordenantza honetan ezarritako zigorren zenbatekoak urtero eguneratuko dira automatikoki, kontsumoko prezioen indizearen arabera. Hori aurreko urteko zigorrari aplikatuko zaio.

24. artikulua.- Zigor espedientea

Dagozkion zigorrak ezartzeko, beharrezkoa izango da aurrez dagokion espedientea bideratzea, eta espediente hori otsailaren 20ko 2/1998 Legean (EAEko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoan) xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

25. artikulua.- Ordezko betearazpena

1.- Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko agintzen badu Udalak, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio ordezko betearazpenaz, eta horretarako izendatutako tokian utzi. Jabetzak eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion gastuak ordainduta, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Erkidearen otsailaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikuluak.

2.- Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez ere sei hilabetez jasoko dira. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga ahal izango ditu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Terrraza eta mahaitxoak jartzeko emandako baimenak pixkanaka ordenantza honetan ezarritako baldintza tekniko eta publizitate-baldintzetara egokitzeko, 2002ko abenduaren 31 arteko egokitze-aldia ezartzen da. Egun horretatik aurrera, terraza eta mahaitxoen osagai guztiek ordenantza honetan ezarritako baldintza teknikoak eta publizitate-baldintzak bete beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

1.- Ordenantza honen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera hamabost egun baliodun igarotzean hasiko da ondorioak sortzen ordenantza hau.

2.- Berariaz udal agintaria ahalmentzen lizentziak emateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, beti ere administrazio prozedura erkideari buruzko araudian jasotako arauen arabera.